Gurasoei gutuna

Eraitz Gorrotxategi
2001ean jaioa, Guatemalan
2002an Gipuzkoan adoptatua

Gabon ama, gabon aita:

Zer moduz zaudete?

Gutun hau 2026ko otsailaren 23an idazten ari natzaizue, benetan nigatik egin duzuena eskertzekoa baita.

2001eko abuztuaren 20an jaio nintzen, eta zortzi hilabete ondoren, zuen ondora iritsi, familia baten goxotasunera.

Ume nintzenetik izan zaituztet alboan eta horrek ez du parekorik, edozein momentu izan baita aproposa elkarrekin egoteko. Nire haurtzaroko oroitzapen handirik ez dudan arren, pozik gogoratzen dut garaia, nire bidea erraza eta babestua izatea egin baitzenuten.

Amatxo, zurekin dudan oroitzapenik politena haur nintzela Zumarragako zinemara joan ginen arratsaldekoa da: Gabonetako euskarazko film bat ikustera eraman ninduzun eskutik, eta plan goxoa atera zen.

Aitatxo, zurekin berriz, asteburuetan sukaldean "labadoraren" ondoan lurrean eseri eta hurrak mailuarekin txikitzen genituenekoa dut gordeta. Handitzen joan naizen eran, maitasuna ez da inoiz falta izan, ezta elkartasuna ere.

Bidean hainbat gorabehera izan ditugu, pertsona ororen gisan, eta hauek sukaldeko mahai inguruan eserita aztertu eta konpondu ditugu.

Familia baten partaide izateko aukeraz gain, maitasunak mugarik ez duela ikusteko aukera eman didazue, munduaren ertz ezberdinak ezagutzeko, musikarekiko pasioa lantzeko, naturarekin bat egiteko, heziketa duin eta euskalduna jasotzeko. Jolasteko, haur izateko, amesteko.

Gaur egun nire jaioterrian egongo banintz, ez nintzateke Eraitz Gorrotxategi Zuaitz izango, ez izenez, ezta izanez ere, hain litzateke ezberdin guztia… Igaro dira 24 urte ene ama hizkuntza jasotzen hasi nintzenetik, zuek besoetan lehen aldiz hartu ninduzuenetik, familia bat izateko aukera eman zigutenetik. Orain ez dut biok besarkatzeko aukerarik, baina bai besarkada horien beroa sentitzerik.

Gaur egun nire jaioterrian egongo banintz, ez nintzateke Eraitz Gorrotxategi Zuaitz izango, ez izenez, ezta izanez ere, hain litzateke ezberdin guztia...

Amatxo, bion eskuak askatu dira dagoeneko, baina horrek ez du elkarren babesa itzaliko; ni zure bizipoz izan naizen bezalaxe izango baitzara zu nire gidari. Orain aitatxorekin noa eskutik eta elkarren bidelagun gara.

Gehiago luzatu gabe, asko maite zaituztedala esan nahi dizuet.

Aitatxo Jexux, Amatxo Lurdes, **ZUEN ALABA NAIZ ETA HARRO NAGO!**

Ondo izan eta Pozik bizi.

Zuen bihotzeko azukre koxkorra,

Eraitz.